

Liburutegian euskaraz. B2-C1

Nori zuzendua	Nafarroako liburutegiko langileei, horiez gain, kultur teknikariei ere eskainiko zaie. B2 edo C1 mailan ari direnei.
Helburuak	<p>Orokorra: Liburutegia zein kultur etxeetako langileak euskaraz trebatu bai ahozko komunikazioan, bai idatzizkoan.</p> <p>Zehatzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Liburutegien zein kultur etheen hizkuntz paisaiaren ingurukoak. Kartelak, oharrak eta oinarrizko testuak euskaraz ere ager daitezten. Batez ere, argitasuna eta zuzentasuna landuko dira • Posta elektronikoa: jakinarazpenak, aktak, bilera-deiak eta beste idazten trebatu. • Lan arloko hiztegia eta adierazpideak ezagutu. • Instrukzioa eta iruzkinak: langileak trebatu bezeroei ohiko argibideak ematen. Bestalde, liburuen inguruko iruzkinak egiten trebatu. • Elkarlana sustatu. Liburuzaina ez da langile isolatu bat, elkarlanean ari da kultur teknikariarekin edota bere inguruko beste langile eta karguekin, lagundu harreman horiek euskaraz ere gerta daitezten
Edukiak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ahozko hizkeraren ezaugarriak: aldaera fonetikoak, sintaxiaren norabide aldaketa, parafrasiak, makulu-hitzak etab. 2. Laneko hiztegia eta esapideak noiz eta nola erabili, eta ulergarriak egiteko estrategiak. 3. Instrukzioa, argibideak: koherentzia eta kohesioa. 4. Abisuak, oharrak, aktak, bilera-deiak, kartelak, mezu elektronikoak eta bestelako idazkiak: kunplimentuak, orduak, datak, helbideak, fraseologia
Nola	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastaro praktikoa izanen da. Egunero erabiltzen duten materiala izanen dugu oinarri. • Irakasleak, aurretik, lantokiaren (hainbat lantokien) azterketa egingen du, gisa horretan errealitatetik abiatu da ikastaroa. Hau, zer egin dezakezu zure lantokiko hizkuntza paisaia euskaratzeko? Zer egin, gazteleraz egin ohi dituzun hainbat lan euskaraz egin ahal izateko?. Ikasleek lanean erabiltzen dituzten dokumentuak ekarriko dituzte eta haien gainean lan egingen dugu. • Liburutegietan zein Kultur etxeetan egin ohi diren ikastaro, kanpainak eta ekitaldien inguruko oinarrizko argibideak emanen dituzte ikasleek. • Irakurri berri duten liburu baten iruzkina egin beharko dute. Helburua liburu hori inori gomendatzea da. • Ekitaldi baten aurkezpena egin: liburu baten aurkezpena, mahai-inguru bat moderatu.
Formatua	Ahozkoa aurrez aurreko klasetan landuko da, 2 orduko saiotan Idatzizkoa, nagusiki, on-line landuko da, moodle plataforma erabiliz.
Egutegia Orduetgia	Aurrez aurreko saioak: apirilak 30 eta maiatzak 8, 15, 22 eta 29 11:30etatik 13:30etara
Ziurtagiria	Bertaratze agiria, lanen %80a eginez gero
Tokia	Nafarroako Liburutegi Nagusia